

TESTU MOTAK: LOTU ZUTABE HAUEK TESTU MOTA KONTUAN HARTUTA

ADIBIDEAK

Gameluak ur bazterretik aseta aldendu eta euren jabeengana itzulita zeuden, ekipajeak-eta gerri bueltan lotzen uzteko. Ilelek agindu batzuk eman zizkien gizonen, eta gero bere gauzen artetik bi turbante urdin atera eta luzatu egin zizkigun.

*

- Arriskutsua da basamortua zeharkatzea?
- Arriskutsua ez, ezinezkoa, zuentzat behintzat.
- Zergatik?
- Ezin duzue imajinatu batzuk zer egiteko gauza diren etxetik ihes egindako emakumezko bat topatuz gero. Baina arazo nagusia basamortu bera da: eguzkiaren indarra, hareazko ekaitzak, orientatzeko arazoak...

*

Turbantea apur bat askatu eta aurpegi osoa erakutsi zigun. Bizar zuri laburra zeukan, eta begirada oso tinko eta sarkorra, pentsa zitekeen burutik pasatzen zitzaiguna ikusteko gaua zela. Gizon fidagarria ematen zuen eta berarekin gezurretan zertan ibili ez geneukala iruditu zitzaidan.

*

EZAUGARRIAK

*

Bi pertsonen edo gehiagoren arteko hitzezko trukea. Zerbaiten berri jakiteko edo zerbaiti buruz bere iritzia izateko egiten den solasaldia.

*

*

Kontatzen dena. Ekintzak edo gertatzen dena azaltzeko kontakizuna.

*

*

Pertsona, lekua edo gauza bat nolakoa den azaltzeko erabiltzen dugun testua.

*

TESTU MOTA

*

ELKARRIZKETA

*

DESKRIBAPENA

*

NARRAZIOA